

## Begiratu zabala gaur egungo Pragmatikari\*

Kepa Korta  
ILCLI, UPV-EHU  
[ylpkocak@sf.ehu.es](mailto:ylpkocak@sf.ehu.es)  
[pre-print. GOGOIA I]

“Esanahia zentzu zabalean hartzen badugu, bai Semantikaren esparrura eta bai Pragmatikarenera, bietara sartzen zaigu. Orduan, esanahi ezberdinen arteko berezketa egin beharrean izango gara. Alde batetik, **Semantikazko esanahia** eta bestetik, **Pragmatikazko esanahia**. Semantikak esanahi gramatikala izango luke aztergai, hots, perpaus barnekoa, testuak nahiz testuinguruak alde batera utzirik lortuko genukeena. Bestaldean, esanahi pragmatikoa izango genuke, zeinaren aztergaia testuak zein testuinguruak eraginiko adiera izango baikenuke, hau da, kanpotik datorrena ere kontutan hartzen duena.

Beste hitz batzuek esanik, *Semantika* hitzaren bidez **egibalioa** adierazi nahi dugu hemen, edo eta, autore zenbaiten terminologia erabiliz, **proposizio edukia**”. (Osa, 1990, 25. or., 4. oh.)

### Abstract

*This is a survey article on contemporary pragmatics within the so-called “angloamerican tradition.” Its main goal is to present a wide view on the discipline for researchers non-familiar with linguistic pragmatics. After doing a little history from Peirce and Morris to Austin and Grice, we outline two of the most important theories nowadays: the theory of speech acts and relevance theory. We also try to explain which are the basic assumptions of pragmatics, which characterize it as one of the most promising branches of contemporary linguistics, without leaving aside the debate about the delimitation between semantics and pragmatics. No doubt, we have opted for a conception of pragmatics rooted in the analytic philosophy of language. It is suggested that the most important challenge for pragmatics is to find a unified way to face the problems raised by its multidisciplinary.*

### 0. Sarrera

Eusebio Osarena da, nik dakidala, euskaraz argitaratu den Semantika eta Pragmatikako lehen lana, hemen erabiliko dugun diziplina horien zentzu hertsian behintzat. Goiko aipamen horretan Pragmatika eta Semantikaren definizio labur baten saioa egiten du Osak, garai horretako definizio saio guztiek erakusten duten nahasketa kontzeptual antzekoaz. Esanahia du aztergai Pragmatikak. Semantikak ere bai. Horregatik, bata bestarekin alderatuz formulatu ohi dira bakoitzaren definizioak. Semantika perpausaren esanahiaz arduratuko litzateke; Pragmatika esaldiaren esanahiaz. Pragmatikak testuingurua hartuko luke kontuan; Semantikak ez. Semantikak egibalioa hartuko luke aintzat; Pragmatikak ez. Pragmatikak erabilera aztertzen du bereziki; Semantikak ez. Kontraposizio guzti hauek ez dira baliokideak;

---

\* Lan hau EHUren ikerketa proiektu baten laguntzaz egin da (UPV I09.I09-HA010/99). Eskerrikasko ILCLiiko Semantika eta Pragmatikako mintegiko partaideei, eztabaidarako aukera emateagatik. Eskerrak baita ere Jesus M. Larrazabali eta bi txostengile anonimori lan honen aurreko bertsio bati egindako iruzkin eta zuzenketengatik. Ez ditut euren gomendio guztiak bete baina bistan da lanak izan ditzakeen merituak ez direla guztiak, inondik ere, nireak; akatsek, aldiz, ez dute beste erantzulerik neu baizik.

ez digute Semantikaren eta Pragmatikaren esparru bera mugatzen, alegia. Ezin, beraz, bere horretan onartu.

Egia esan, gaur egun ere ez da erraza Pragmatika zer den argi definitzea. Definizio labur guztiek beti uzten dute zerbait Pragmatikatik kanpo; edota Pragmatikarena ez den zerbait ere sartzten dute zaku barrura (ikus eranskinean honelako zenbait definizio saioen bilduma). Atal bat eskainiko diot Pragmatikaren mugatzeari, esanahiaren azterketan Semantikaz bereizten duten aldeei bereziki. Pragmatikaren aurrekarietako buruzko historia ttiki bat ere egingo dut. Baina ez naiz horietan gehiegi luzatuko. Lan honen helburua Pragmatikaren gaur egungo egoerari begiratu zabal eta zehatza ematea da, Pragmatikarekiko arrotzak direnei eremu honen berri zabala modu ulergarrian eskainiz eta gertuago dabiltzanei eztabaidagarri gerta lekizkiekeen aukerak aurkeztuz. Horretarako diziplinaren jatorri hurbilenetara jo beharko dugu, baina betiere gaur egun bizirik dauden fenomeno eta teoria pragmatikoen esplikazioa lehenetsiz.

Edozein modutan, garbitu dezagun hasieratik beretik zertxobait bidea: hizkuntza naturalaren Pragmatikaz hitzegin nahi dut hemen, Pragmatika linguistikoaz. Bestela esanda, Pragmatika Hizkuntzalaritzaren adar ez-historikotzat hartzen dut, Fonologia, Fonetika, Morfologia, eta bereziki Sintaxia eta Semantikarekin batera. Honela, alde batera uzten ditut Pragmatika Soziolinguistikarekin, hizkuntzaren garapen eta aldaketarekin, edota Antropologia Soziokulturalarekin, esaterako, lotzen duten ikuspegiak. Levinsonen (1983) bereizketa erabiliz, Pragmatika “tradizio angloamerikarrari” gehiago lotzen diot “tradizio kontinentalari” baino. Zabala izanagatik, beraz, ez du begiratu honek guztia harrapatuko. Eta hobe horrela, lanak mugarik izango badu.

Lehen atalean, beraz, pragmatikaren jatorrietako buruzko zertzelada historikoak aurkituko dira: Morris, Carnap, Bar-Hillel, Montague, Strawson eta Wittgenstein labur aipatuta, Austin eta Grice-ri toki gehixeago eskaintzen dizkiot, Pragmatikaren fundatzaile nagusi gisa nire ustez dagokien moduan. Bi filosofo hauen lanetan hasi daiteke ikusten gaur egungo teoria pragmatikoen darabiltzaten printzipio, kontzeptu eta kezka nagusietako batzuk. Bigarren atala, gaur egun arrakasta gehien duten bi teoria pragmatiko handienak aurkeztuko ditugu: hizketa-ekintzen teoria eta pertinentziaren teoria. Horrekin ez dugu gaur egun Pragmatikan egiten den guztia harrapatzen –ezta “tradizio angloamerikarreko” Pragmatikaren zentzu hertsiaigo honetan ere- baina talaia egokienak dira, nire ustez, Pragmatikaren eremuan begiratu zabal eta zehatzak ematen hasteko. Hirugarren atalean, pragmatikarien arteko adostasun puntu batzuk aurkitzen saiatuko naiz, hizkuntzaren esanahiaren azterketan Pragmatikak lortutako “aurkikuntzak” edo. Ez da hau lan erraza, eztabaida puntuak adostasunekoak baino gehiago eta nabarmenagoak dira, dudarik ez, baina beharrezkoa da Pragmatikaz ideia bat egiteko horrelako puntu batzuk ezagutzea. Laugarren atalean, Pragmatikaren (eta Semantikaren) definizioaren arazora itzuliko gara. Hau ere eztabaida puntua da eta ez dago ahobatez onartutako definiziorik. Saiatuko naiz, hala ere, adostasunerako bat proposatzen. Bosgarren atala aurrera begirakoei eskainiko diet. Pragmatikak diziplina gisa etorkizunik badu, izan beharko luke itxi gabeko arazorik eta aurrera begirako ildo berririk. Azken atalean, ohikoa denez, ondorio orokorrak laburtuko ditut amaiera gisa.

## 1. Pragmatikaren “historia”

Edozein zientzi diziplinaren jatorri historikoetan arakaten hasiz gero beti topatuko dugu Aristoteles handia. Pragmatikaren aurrekarien bila hasiz gero ere bai. Kurioso da hala ere azken hau, Aristotelesi berari egozten baitzaio hizkuntz estudioek perpaus deklaratiboei, esaldi apofantikoei, egiazko ala faltsu izan daitezkeen horietxei historikoki eskaini zaien arreta pribilejiatu, ia eskusiboaren ardura. Ahaztu egiten da, ordea, Aristotelesen *Erretorikaren* lehen liburuan hizkuntz erabilera ezberdinei buruzko kontsiderazioak daudela; *logos*-arekin batera kokatzen dituela hiztunaren *ethos* eta entzulearen *pathos*-a, Erretorika bera Dialektikaren antistrofa moduan kontsideratuz.<sup>1</sup>

Nolanahi ere, gaur egungo Pragmatika linguistikoaren “historia”<sup>2</sup> labur bat egiteko ez dago hain atzera jo beharrik. Pragmatika hitza erabiltzen duten lehen definizioak XX. mendekoak dira eta horiekin hasiko gara.

### 1.1. Lehen definizioak

Pragmatikaren nozioa Charles Sanders Peirce filosofo estatubatuarren lanean (1934-36) agertu zen lehen aldiz “Semiotika” izeneko zeinuaren teoriaren barnean.<sup>3</sup> Peirceren helburua Semiotikaren oinarriak mugatzea zen eta, zeinuaren definizioa era triadikoan finkatu ondoren, interes berezia jarri zuen zeinuak interpretatzailearengan dituen efektu kognitiboak aztertzen.<sup>4</sup> Charles W. Morrisek (1938) sartzen du Pragmatika, Sintaxia eta Semantikarekin batera, Semiotikaren adar gisa, honela definituta:

“Pragmatika zeinuaren eta interpretatzaileen arteko erlazioaz arduratzen da.”  
(Morris 1938, 6. or.)

Honekin batera, noski, Semantikaren definizioa dator zeinuaren eta honek denota dezakeen objektuaren arteko erlazio gisa. Semantika eta Pragmatikaren definizio hauek izan dute eraginik gaur egungo ikuspegian, baina semiotikaren barruko adar gisa definituta ez da oraindik hizkuntza naturala bere objektutzat hartzen. Gainera horren ondotik ematen duen karakterizazioak, Pragmatika zeinuen funtzionamenduari lotutako fenomeno psikologiko, biologiko eta soziologiko *guztien* estudiotzat hartzen duenak, eremu ikaragarri zabala eskaintzen dio, bere konduktismoaren mugen barnean. Carnapena da hizkuntza naturalaren azterketari lotuago dagoen definizioa:

“Ikerketa batean hiztunari, edo, orokorrago esanda, hizkuntzaren erabiltzaileari erreferentzia esplizitua egiten bazaio, orduan Pragmatikaren

---

<sup>1</sup> Ikus Conley 1990.

<sup>2</sup> “Historia” hitzaren inguruko komatxoaren azalpena hau da. Ez da oraingoz Pragmatikaren Historiaren izena merezi duenik idatzi. Ezta idatziko ere, batzuen iritziz (Kasher 1998, 1. bolumena, 3-5 or.), Pragmatikak identitatea eta heldutasuna lortu bitartean. Ikus, hala ere, Nerlich eta Clark 1996, Europa eta Amerikako 1780tik 1930 bitarteko Pragmatikaren historiako.

<sup>3</sup> Filosofian James eta ondokoek defenditutako “Pragmatismoa” edota Peirceren “Pragmatizismoa” izeneko joerei eta Pragmatikari ez zaie lotura berezirik bilatu behar.

<sup>4</sup> Nöthek (1990) hau dio: “Strictly speaking, semiosis, and not the sign, is thus the proper object of semiotic study” (42 or.).

esparruari egokitzen diogu” (Carnap 1942, 6. or)

Ondoren Carnapek Semantika eta Sintaxiaren definizioak eskaintzen dizkigu, hiruak hizkuntzaren estudioaz arduratzen den semiotikaren adar gisa.<sup>5</sup>

Morrisen eta Carnapen ikuspegiak baino Yehoshua Bar-Hillelen lanak (1954) egin zion hasierako tokitxo bat Pragmatikari Hizkuntzalaritzaren barnean. Morris eta Carnapen karakterizazio zabalik egin gabe, Bar-Hillelek lotzen du Pragmatika testuinguruaren menpekoak diren adierazpen linguistikoen esanahiaren azterketarekin, edo beste hitz batzuetan, *indexikalitatearen* azterketarekin. Pragmatikari ikerketa bidea zehazten dio horrela, ez bide laburra gainera:

“Ez daukat estatistikarik eskura baina nik esango nuke bizi garen artean produzitzen ditugun perpaus-ale deklaratioben ehuneko 90 baino gehiago perpaus indexikoak direla eta ez baiespenak.” (Bar-Hillel 1954 (Kasher 1998, 29. or.)

Pragmatika adierazpen indexikoen azterketarekin besterik gabe identifikatzeak ez digu Semantika eta Pragmatikaren arteko bereizketa garbirik ematen ondoko atalean ikusiko dugunagatik.

## 1.2. Montague eta “Pragmatika formalak”

Richard Montague logikari estatubatuarra ezaguna da hizkuntzalarien artean Semantikari bidea egiten lagundu baitzion Hizkuntzalaritzaren barruko adar autonomo gisa. Hizkuntza logiko artifizialentzako erabiltzen den tresneria formal bera erabili zuen hizkuntza naturalaren Semantika egiteko.<sup>6</sup> Semantika hau, noski, ez da testuinguruaren menpekoa eta, ondorioz, kanpoan uzten da testuinguruaren beharrik duen edozein adierazpenen esanahia, indexikoen esanahia, alegia. Montaguek, Bar-Hillelen hariari jarraiki, “Pragmatika” deitzen dio indexikoen esanahiaren berri ematen duen azterketari; Pragmatika beretzat indexikoen analisi formalaz aberastutako Semantika da. Horretarako, adibidez, lehen pertsonako izenordain singularra (“ni”) duen denboradun perpausa aztertzeke eredu gisa mundu posibleak hartu ordez, denborarentzako eta hiztunarentzako koordinatuak dituzten mundu posibleak (“indizeak”) hartzen ditu kontuan. Zehaztaperen hauek, hala ere, ez dira testuinguruaren menpekoak. Horregatik, nahiago dugu esatea Montaguerean indexikoen Semantika dela, eta ez Pragmatika. Izan ere, indexikoen Semantika eta Pragmatika bereizten dira gaur egun. Kaplanen lanari (1989) jarraiki, adierazpen indexikoen *karakterra* eta *edukia*. Montaguerean “pragmatikak” adierazpen indexikoen *karakterra* aztertuko luke. Beti legoke ordea indexikoen edukien azterketarako lekua, Montaguerean “pragmatikarena” ez baina Pragmatikarena baden aztergaiarentzako, alegia.<sup>7</sup>

---

<sup>5</sup> Carnapek (1956) hauxe dio: “There is an urgent need for a system of theoretical pragmatics, not only for psychology and linguistics, but also for analytic philosophy. Since pure semantics is sufficiently developed, the time seems ripe for attempts at constructing tentative outlines of pragmatical systems” (250 or.)

<sup>6</sup> Ikus “English as a formal language” eta “The Proper Treatment of Quantification in Ordinary English” lanak Thomason 1974 bilduman.

<sup>7</sup> Indexikoei buruz ikus baita ere Perry 2000 eta 2001.

Itzul gaitezen orain Pragmatikaren aurrekari historiko laburraren aurkezpena.

### 1.3. Strawson

Ez da oso arrunta Strawson Pragmatikaren aitzindarien artean argi aipatuta ikustea. Hala ere, Russellen deskribapenen teoriari kritika egiten dion artikulu ezagunean<sup>8</sup> Pragmatikaren oinarri batzuetarako bidea egiten du garbi asko hiru puntuotan gutxienez:

- a) Perpau eta esaldiaren arteko bereizketaren beharra azpimarratzen du.
- b) Erreferitza adierazpenek ez, hiztunek adierazpenak esanez egiten duten gauza dela argudiatzen du.
- c) Gaur egungo Pragmatikan gairik eztabaidatuenetakoa den ‘auresuposizio’ nozioa formulatzen du.

Azken puntu hau da beharbada bitxiena. Izan ere, aurreko bi puntuetan defenditu duenaren arabera auresuposizioaren tratamendu pragmatikoa naturala izan arren, auresuposizioaren tratamendu semantikoa eskaintzen baitu Strawsonnek aipatu artikuluan. Edozein modutan, gaur egungo Pragmatikaren ikuspegitik argia da Strawsonnek egiten dituen ekarpenen garrantzia aitzindari gisa.

### 1.4. Wittgenstein

Arrunt samarra da Pragmatikako testuliburuetan Wittgenstein aitzindarien artean aipatua ikustea, *Bigarren Wittgenstein* noski, *Ikerketa Filosofikoen Wittgenstein*. Eta guztia aipamen bakar batean oinarritua:

“ “Esanahia” hitza erabiltzen dugun kasu klase *zabal* baterako –baina ez guztietarako- honela defini daiteke: hitz baten esanahia hizkuntzan duen erabilpena da.” (Wittgenstein 1953, 43)

Wittgensteinen lan honetan ezer garbirik uler badaiteke, hori hizkuntza eta esanahiari buruzko edozein teoriaren inposibilitatea da, eta nekez izan daiteke hori Pragmatikaren oinarri; Pragmatikaren ukazioa da gehiago.<sup>9</sup> Wittgensteinen lan honek Austinengan izandako eragin itzela aipatzen duena ere oker dagoela dirudi. Austinek ez zion estimazio handirik Wittgensteinen lanari, ez forman eta ez edukian.<sup>10</sup>

Garbi dagoena da bi filosofo hauek direla Pragmatikari oinarri sendoenak eskaini zizkietenak: John L. Austin eta H. Paul Grice. Bi hauen lanek Pragmatika “erditu” zuten eta bultzada itzela eman zioten jaioberriari.

Bakoitzaren aurkezpena egin aurretik aipa ditzadan betidanik harritu nauten antzekotasun batzuk. Austin eta Grice, biak dira Oxfordeko Unibertsitatean heziak.

---

<sup>8</sup> Strawson 1950. Russellen deskribapenen teoria: Russell 1905.

<sup>9</sup> Russellek (1959) ez zituen batere estimatu Wittgensteinen *Ikerketak*: “I have not found in Wittgenstein’s *Philosophical Investigations* anything that seemed to me interesting and I do not understand why a whole school finds important wisdom in its pages” (161 or.)

<sup>10</sup> Searleri entzun dizkiot Austinek Wittgensteini buruz esandakoak omen direnak: “Lausoegia da.” “Guztia Mooreregan dago.”

Oso gutxi idatzi zuten –gaurko estandar akademikoekin alderatuz gero behintzat-, are gutxiago argitaratzeko asmoz. Euren itzalaren zatirik handiena aurrez aurreko hitzaldi eta eztabaida formal zein informalei zor omen zaie. Lanik ezagunenak Harvard Unibertsitateko William James Lectures izeneko hitzaldien bertsiotzeak dira.<sup>11</sup>

### 1.5. Austin

Austinen ekarpenik ezagunenetakoa esaldi konstatiboaren eta performatiboaren arteko bereizketa da.<sup>12</sup> “Esaldi performatiboak” Austinek sortutako terminoa da, ordurarte filosofoen artean osoa jasotako esaldi “konstatiboak” bereizteko –azken hauek, filosofoen ustez, esanahi kognitiboa zuten bakarrak ziren, egiazko ala faltsu izan daitezkeelako. Esaldi performatiboaren bereizitasuna hiru puntutan ikus daiteke:

- 1) esaldi performatiboak zerbait egiten dugu, zerbait esan edo baietsi baino gehiago;
- 2) esaldi performatiboak ez dira egiazko edo faltsu, “zorionez” edo “zoritarrez” eginak baizik;
- 3) forma tipikoan aditz berezi bat daukate egiten den ekintza adierazteko, eta “honen bitartez” bezalako esapideak.

“Euria ari du” eta “Elurra zuria da” bezalako konstatiboaren ondoan, “Etorriko naizela promesa egiten dizut” bezalako performatiboak dauzkagu, beraz. Austinek, hala ere, baztertu egiten du bereizketa, konstatiboak ere badauzkatelako hiru ezaugarri horiek. Konstatiboak egiten den baiespena promesa bezain ekintza da. Konstatiboak ere izan daitezke “zorioneko” edo “zoritarreko” eta ustezko performatibo asko ere har daitezke egiazko ala faltsutzat. Eta, azkenik, baiespena aditz performatiboak ere badaude. Erraz asko esan daitezke “Honen bitartez uria ari duela baiespena dut”. Guzti honengatik, Austinek konstatibo/performatibo bereizketa ezabatu<sup>13</sup> eta hizketa-ekintzaren teoria orokor baten oinarriak proposatzen ditu. Teoria honen arabera, esaldi baten hiru deskribapen maila bereiz daitezke:

- i) ekintza lokutiboaren maila: hitzak esanahi batekin esatea. Maila honen barruan beste hiru deskribapen maila bereizten ditu Austinek:
  - a. ekintza fonikoa: soinu kate artikulatuak esatea da esaldia.
  - b. ekintza fatikoa: hiztegi bateko hitzak gramatikaren arabera egituratuta esatea da esaldia.
  - c. ekintza retikoa: zentzu eta erreferentzia bat duten hitzak esatea da esaldia.
- ii) ekintza ilokutiboaren maila: hitzak indar batekin esatea. Indar ilokutiboa deitzen dio esaldien indar honi.
- iii) ekintza perllokutiboaren maila: entzulearengan efektu batzuk eragitea.

Austinen adibidea erabiliz, “Egizu tiro hari” esaten badut, orduan “Egizu tiro” esanez tiro egiteko esan nahi dut eta “hari” esanez hari egiten diot erreferentzia; hots, ekintza lokutibo jakin bat egin dut. Orain, perpaus hori *agindu, aholku edo eskaera* baten indarrez egin badut, hitz horiek nire esaldiaren indar ilokutiboa izendatuko dute eta, bide batez, esaldiaz egin dudana ekintza ilokutiboa ere bai. Entzulea hari tiro

<sup>11</sup> Austin 1955ean gonbidatu zuten, Grice 1967an. Emaizak ikusteko: Austin 1962 eta Grice 1989.

<sup>12</sup> Ikus Austin 1961.

<sup>13</sup> Ikus Searle 1989 eta Bach eta Harnish 1992.

egiteko *konbentzitu* badut, konbentzimendua izango da Austinek ekintza perlokutiboa deritzon efektua.

Ekintza ilokutibo eta perlokutiboei buruzko bereizketa izan da garrantzitsuena hizketa-ekintzaren ondoko garapenarentzat behintzat.<sup>14</sup> Hizketa-ekintzen teoria ekintza ilokutiboen teoria da batez ere, bai Austinen lanean baita bere ondorenean ere. Hizketa-ekintzen hiru deskribapen mailaz gain, aditz performatiboetan oinarrituta ekintza ilokutiboen taxonomia ere eskaintzen digu Austinek. Izan ere, hizkuntz erabilera ugari izanda ere, denbora pixka bat hartuz denak kontatu eta klase gutxi batzutan sailka genitzake, haren ustez.

Austin gazte hil zen baina lan egitarau berri itzela jarri zion hizkuntzaren azterketari. Bere ikasle izandako John Searlek eman zion segida, gaur egungo Semantika eta Pragmatikan hain ezaguna den hizketa-ekintzaren teoria eraikiz eta oinarri horien berrikuspen eta zabalpena eginez. Gaur egungo Pragmatikaren bigarren habe nagusia H. Paul Grice filosofoak jarri zuen.

### 1.6. Grice

Lehen esan dugunez, Paul Gricek ere oso gutxi idatzi zuen argitara emateko asmoz behintzat. Ia lan denak liburu bakar batean biltzen dira.<sup>15</sup> Eta 1989an liburu hau argitaratu arte, urte askotan artikulu solteak eskuz esku zabaldu ziren edo han eta hemen aldizkari eta bilduma ezberdinetan publikatu. Horrek Griceren lanaren osotasuneko ikuspegia galerazi du. Semantika eta Pragmatika gaietaz ari dela ere, Griceren bi teoria aipatu ohi dira bata bestearekin lotura zuzen argirik ez balute bezala:

- a) Griceren esanahiaren teoria: komunikazio asmoak.<sup>16</sup>
- b) Griceren elkarrizketaren teoria: inplikaturak.<sup>17</sup>

Gaur egun argiago dago, teoria orokor batean modu koherentean uler daitezkeela eta ulertu behar direla segurasko.<sup>18</sup> Baina ez gara horretaz hemen arduratuko, ezta asmoen bidez nozio semantikoak nozio psikologikoetara eramateko proiektuaz ere.<sup>19</sup> Hemen “elkarrizketaren” teoriar arduratuko gara, hau baita Pragmatikari bultzada ikaragarria emango dion teoria. Ikusiko dugun bezala, elkarrizketa gobernatzaren erregelari buruzko teoria egin baino, esaldien bidez esaten duguna baino gehiago komunikatzea nola den posible esplikatzen du Gricek; ez-literaltasuna nola ulertzen den modu orokorrean ekonomia metodologiko argiaz esplikatzean dago bere meritua.

Elkarrizketa gobernatzaren erregelari buruz printzipio orokor eta zehaztugabe batzuk ematen dizkigu Gricek. Printzipio horiek giza arrazionalitateari buruzko printzipio orokorragoetatik eratortzen direla iradokitzen du, eta elkarrizketa esfortzu kooperatibo gisa karakterizatzen du. Ezer gutxi gehiago esaten digu

---

<sup>14</sup> Maila lokutiboaren eta ilokutiboaren arteko bereizketa ukatuko du gero Searlek (ikus Searle 1973).

<sup>15</sup> Grice 1989, hil zen urtean argitaratua.

<sup>16</sup> Ikus Grice 1957, 1968 eta 1969.

<sup>17</sup> Ikus Grice 1967a-b.

<sup>18</sup> Ikus Neale 1992, Griceren lanaren azalpen oso, labur eta interesgarri baterako.

<sup>19</sup> Ikus beheko 3.4 atala eta komunikazio asmoen eztabaida interesgarri baterako Recanati 1986 eta Bach 1987.

elkarrizketari buruz bere *Kooperazio Printzipio* eta *Elkarrizketa Maximetan*.<sup>20</sup> Azken hauen garrantzia inplikaturak sortzean duten funtzioan dago. Izan ere, inplikaturak sortzeko era arruntena maximetako bat modu agerian bete gabe uztea da. Baina, azal dezagun lehenbizi zer den inplikatura bat.<sup>21</sup> Griceren beraren adibidea erabiliz, eman dezagun A eta B hizketan ari direla bien lagun den C-ri buruz. Biek dakite banku batean hasi dela C lanean eta A-k galdetzen du:

A: Nola doakio C-ri lanean?

B: Ongi, uste dut. Oraindik ez dute kartzelan sartu.

Zer esan nahi du B-k “Oraindik ez dute kartzelan sartu” esanez? Garbi dago esan duenaz aparte, beste zerbait ere eman nahi diola aditzera A-ri. Lan mota horrek sortutako tentazioei men egiteko pertsona dela C, edo testuinguruan erabat argi egon daitekeen beste zerbait. Gricek bereizi nahi dituenak B-k bere esaldiaz *esandakoa* eta *inplikaturakoa* dira. Esandakoa perpausaren esanahi konbentzionalak, indexikoen erreferenteak finkatzeak eta (behar izanez gero) desanbiguazioak mugatzen dute. Esandakoa mugatuta, entzuleak abiatu behar duen inferentziaren emaitza da inplikaturakoa, *inplikatura* alegia. Goiko adibideari aplikatuta, inferentzia honen ohiko itxura honakoa da:

- 1) Esan duena esanda, B-k, antza, “Izan zaitetz pertinente” maxima utzi du bete gabe, baina ez dut arrazoirik Kooperazio Printzipioa bete nahi ez duela pentsatzeko.
- 2) Baldintza hauetan, maxima ez betetzea itxurazkoa bakarrik izan daiteke, suposatzen badut B-k uste duela C iruzurgilea izan daitekeela.
- 3) B-k badaki nik 2) urratsa egin dezakedala.
- 4) Beraz, B-k inplikatu egiten du C iruzurgilea izan daitekeela.

Elkarrizketa maximak ez dira beraz derrigor betebeharrak. Batek modu agerian utz dezake baten bat bete gabe, esandakoaren mailan behintzat, eta ez betetze horren esplikazio gisa inplikatura igarri behar du entzuleak. Honela, esan denaz oso ezberdina den zerbait komunikatzea lor dezake hiztunak, baldintza egokietan.

Elkarrizketa inplikaturek dauzkaten ezaugarrien artean bi dira aipagarrienak: ezabagarritasuna eta bereiztezintasuna:

- a) Ezabagarritasuna: inplikazio logikoak ez bezala, elkarrizketa inplikaturak ezabagarriak dira esplizituki edo testuinguruaren bidez. Nahikoa da A eta B-ren elkarrizketaren testuinguru aldaketak B-k esan duenaz (C ez dutela oraindik kartzelan sartu, alegia) C iruzurgilea dela gehiago ez inplikatzeko. Edo testuinguru berean, B-k esandakoari “baina horrekin ez dut esan nahi C iruzurgilea izan daitekeenik” gehi diezaioke, honela inolako kontraesanik sortu gabe.

---

<sup>20</sup> Ikus 2. eranskina.

<sup>21</sup> Jarraian azalduko dugun inplikatura motari “elkarrizketa inplikatura partikularizatua” deitzen dio Gricek. Elkarrizketa inplikaturen klasearen aurrean inplikatura konbentzionalena bereizi zuen. Eta elkarrizketa inplikaturen barruan partikularizatuak eta orokortuak. Gaur egun inork gutxi defenditzen du inplikatura konbentzionalen existentzia, eta orokortuena ere zalantzan jartzen da (ikus Sperber eta Wilson 1986b edo Bach 1994, esaterako; orokortuen defentsa baterako ikus Levinson 2000)



- b) Moduko maximetan oinarritutako inplikaturen kasuan ezik, hiztunak  $p$  esanez  $q$  inplikatzen badu elkarrizketan, ez dago erarik, testuingurua aldatu gabe,  $p$  esateko beste hitz batzuk erabilita hiztunak esandakoaren bidez  $q$  ez inplikatzeko.

Gricek 'test' modura proposatzen ditu bi ezaugarriok elkarrizketa inplikatura baten presentzia baieztatzeko.

Analisi mota honen bidez Gricek figura erretoriko klasiko askoren azalpen uniformeak eskaintzen ditu: ironia, metafora, hiperbolea eta meiosis, esaterako, kalitate lehen maxima modu agerian bete gabe utziz lortuko lirerateke. Tautologiaren erabilera komunikazioan kantitate lehen maxima ez betetzean oinarritzen da. Griceren helburua hizkuntza naturalean eta hizkuntza logikoetan dauzkagun partikula logikoen esanahi baliokidetasuna frogatzea bazen ere, esanahi ez-literaleko kasu gehienetarako esplikazio bidea irekitzen duela da bere meriturik handiena, gerora izan duen eraginaren ikuspegitik behintzat. Semantika eta Pragmatikaren mugetan kokatzen diren arazo klasiko askori azalpena eskaintzen die bere programak eta hortik bere arrakasta. Ondoko ataletan ikusi ahal izango dugu bere eragina hainbat alderdi zehatzetan, baina bere garrantzia Pragmatikaren oinarrietan ere badago:

1. Hasteko, Pragmatikaren oinarriak giza arrazionalitatearen printzipio nagusietan ezartzen ditu. Elkarrizketa (eta komunikazioa) gobernatzen duten printzipio eta maximak giza jokabide arrazionalaren printzipio eta erregela orokorragoetatik eratorzen direla uste du. Berea ez da, beraz, komunikazioaren estudio enpirikoetan oinarritutako azalpen deskribatzailea, teoria arrazionala baizik.
2. Gainera, Gricerengandik aurrera giza komunikazio linguistikoa ez da gehiago kodifikazio-dekodifikazio eredu bidez esplikatu. Garbi geratzen da giza komunikazioan inferentziak duen garrantzia.
3. Giza arrazionalitatearen printzipioetan oinarritutako teoria honek esanahiari buruzko estudioetarako printzipio metodologiko orokorra eskaintzen du, azalpenen ekonomia bere alde duela, anbiguotasunak eta *ad hoc* esplikazioak planteatzen dituztenen aurrean. Honi *Ockhamen laban eraberritua* deitzen dio Gricek: *ez zentzuak multiplikatuko behar baino gehiago*.<sup>22</sup>

Honaino, Pragmatikari buruzko ohar historikoak. Gaur egun Pragmatika ulertzeko modu orokorrean Gricerena da, segurasko, eraginik handiena. Gaur egungo teoria nagusietako bi aurkeztuko ditut orain.

## 2. Teoria pragmatiko nagusiak

### 2.1. Hizketa-ekintzen teoria

Honela deitzen zaio, Austinen lanetik abiatuz Searle filosofo estatubatuarrak (1965, 1969, 1975a, 1975b) garatutako teoriari. Austini jarraiki, oinarritzko hizketa-

---

<sup>22</sup> Ikus Grice 1967b eta Recanati 1989.

ekintza batek edo, hobe esan, ekintza ilokutibo batek<sup>23</sup> bi osagai ditu: *indar ilokutiboa* eta *proposizio edukia*. Ikus ondoko adibideok:

- (1) Jon gelatik irten zen.
- (2) Jon gelatik irten al zen?
- (3) Jon, irten zaitetz gelatik!
- (4) Ea Jon gelatik irtetzen den.

Perpau hauen esaldiek ekintza ilokutibo ezberdinak egingo lituzteke, baina hala ere izango lukete zerbait komuna. Esaldi guzti hauek Joni egiten diote erreferentzia eta gelatik irtetea predikatzen dute. Bestalde, bat baiezipena izan liteke, bestea galdera den bitartean, bestea agindua eta azkena desioaren adierazpena. Ezberdina dutena *indar ilokutiboa* da, berdina dutena *proposizio edukia*. Indar ilokutibo guztiak asko izan daitezke, baina klase gutxi batzuetara bil daitezke. Austinen aditz ilokutiboetan oinarritutako taxonomia kritikatu, Searlek indar ilokutiboen *xedeetan* oinarrituta proposatzen du berea. *Xede ilokutiboa* hiztunak ekintza ilokutiboa egitean duen gutxienerako asmoa da, eta Searleren aburuz, bost dira era honetako xede guztiak:

1. *Baierako xedea* gauza-egoera bat errealtzat errepresentatzean datza; baiezipenak, adibidez, klase honetakoak dira.
2. *Konpromiso xedea* geroko ekintza batekiko hiztunaren konpromisoan datza; promesak dira konpromisokoen adibiderik argienak.
3. *Zuzentzeko xedea* entzuleak zerbait egin dezan saiatzean datza; aginduak eta eskaerak dira hauetako batzuk.
4. *Agerbidezko xedea*, gauza-egoera bat sortzen duen ekintza egitean datzana, norbera ekintza hori egiten errepresentatzearen bitartez; Austinen performatiboak hemen sartuko lirake.
5. *Adierazteko xedea*, hiztunaren gauza-egoera bati buruzko proposizio-jarreraren adierazpenean datzana.

Hizketa-ekintza burutzeko hiztunak izan ditzake, noski, bestelako asmo ugari ere, baina hauek dira, asmo minimoak. Xede ilokutiboa eta honek zehazten duen *egokitze-norabidea* dira hizketa-ekintzen (ekintza ilokutiboen) Searleren taxonomiaren mugatzaile. Oinarritzko hizketa-ekintza literal oro,<sup>24</sup> beraz, bost klase hauetako batekoa da beti, edo bestela esanda, taxonomia exhaustiboa eta eksklusiboa da. Taxonomia honen aldaketak proposatu badira ere,<sup>25</sup> edo are gehiago, bere balio teorikoa gutxietsi,<sup>26</sup> Semantika eta Pragmatikako lanetan estandarra bihurtu da terminologia hau esaldiez hitzegiteko.

Hizketa-ekintzen teoriaren beste ekarpen garrantzitsu bat ez-literaltasunaren analisia da. Searleren azterketa (1975b) *zeharkako hizketa-ekintza* deitzen dituen arduratzen da bereziki. Ekintza hauetan erabilitako perpauak ematen digun xedea eta hiztunak egin asmo duena ez datoz bat. Esaterako, baldintza normaletan, autobusean adibidez, inork “Oina zapaltzen ari zatzaizkit” esaten badigu, literalki baierako xedea duen ekintza egiten ari da hiztuna, baina aldi berean, literalki ez bada ere, oina

<sup>23</sup> Lehen esan dugunez, ekintza ilokutiboen mailan aztertzen ditu teoria honek hizketa-ekintzak.

<sup>24</sup> Searlek ‘oinarritzko’ deitzen die proposizio-edukia duten hizketa-ekintzei, eta ‘literal’ esanahi semantikoa eta hiztunaren asmoa bat datozenean.

<sup>25</sup> Ikus Bach eta Harnish 1979.

<sup>26</sup> Ikus Sperber eta Wilson 1986b.

erretiratzeko eskaria ulertuko dugu. Nola da posible esan ez digutena, hain modu naturalean ulertzea? Hizketa-ekintzaren teoriari Griceren *elkarrizketaren teoria* lotzen dio Searlek hau azaltzeko. Abiapuntua hiztunak literalki esandakoa da eta testuingurua eta maxima gricearrak erabiliz inferentzia egiten du entzuleak zeharka aditzera eman nahi izan diotena ulertzeko.

Ildo hauxe bera, hizketa-ekintzaren teoria eta Griceren teoriak lotzearena, jarraitu du hainbat pragmatikaririk; aipagarriena agian Bach eta Harnishen (1979) lana da, baina beste askok hartu dute Austinek (eta Searlek) eta Gricek irekitako bidea: Levinson (2000) da neogricearren arteko beste kasu aipagarri bat.

Nabarmena da hizketa-ekintzaren teoriak hizkuntzalaritza konputazionalerako aplikazioetan izan duen onarpena. Baita adimen artifizialean egile anitzeko sistemetan komunikazio protokoloak formulatzerakoan. Hizketa-ekintzaren logikan ere lan handia egin dute; batez ere Vandervekenek axioma-eskemen bidez finkatutako sistema formal zuzen eta osoak eskainiz, aldez aurretik mugatutako semantikarekiko.<sup>27</sup> Esan behar da, hala ere, hizketa-ekintzen teoria honen izaera bera oso eztabaidatua izan dela, Semantika eta Pragmatikaren mugei dagokienean. Izan ere, alde batetik, perpaus deklaratioentzat dugun egi-baldintzen semantika perpaus ororentzako asetze-baldintzen semantika orokortzat har daiteke teoria hori. Eta, bestetik, garbi dago ekintza ez-literalen kasuan bederen pragmatika egiten ari garela. Alde horretatik, salomonikoa, hots, justua, izan beharra dago eta esan hizketa ekintzaren teoriak biak, Semantika eta Pragmatika, hartzen dituela, Searle bera bezain ironikoak izan nahi ez badugu behintzat:

“Nik uste dut mugei buruzko eztabaida hauek unibertsitate dekanoen esku utzi beharko genituzkeela”. (Searle (1992), 146. or.)

Gaur egungo teoria pragmatiko nagusiak (arrakastatsuenak behintzat)<sup>28</sup> ere Griceren lanean du jatorria, baina teoria horretan *sinesten* dutenek ez diote euren buruari neogricear deitzen. Teoria hau *Errelebantzia* edo *Pertinentziaren* teoria da.<sup>29</sup>

## 2.2. *Pertinentziaren teoria.*

Hasteko esan beharra dago Sperber eta Wilsonen Pertinentziaren Teoriaren aztergaitzat, hots, Pragmatikaren aztergaitzat ageriko komunikazioa bakarrik hartzen

---

<sup>27</sup> Ikus Searle eta Vanderveken 1985 eta Vanderveken 1990, 1991.

<sup>28</sup> Gaur egungo Pragmatikaren egoerak arriskutsua bihurtzen du teoria jakin bat teoria pragmatiko nagusia dela dioen edozein baieztapen; are gehiago bestelako ñabardurarik egiten ez bada. Hona hemen neureak: (a) ez dago Pragmatikan, ezta hemen tradizio angloamerikarra deitu dugunaren barnean ere, mundu guztiak edo gehiengo zabal batek era argian onesten duen teoriarik; (b) teoria nagusia edo arrakastatsuenak dela esatean ez dut esaten besteen aurrean hobesten dudarik; eta (c) esan nahi dudana da tradizio angloamerikarreko pragmatikalarien artean gaur egun jarraitzaile gehien duen teoria dela, pragmatikan lan egiten duten hizkuntzalarien artean batipat. Lastima da baina ez dut hau horrela dela dioen azterketa soziologikorik. Eskerrak txostengile anonimoetako bati, bere desadostasuna adieraziz, ohar hau eginarazi didalako.

<sup>29</sup> Ingeleseko ‘relevance’ terminoaren erabilera honetan eman beharreko itzulpenari buruzko eztabaidari muzin eginez, baina aukera eginez, *pertinentzia* erabiliko dut hemen. Literatura *pertinentista* ugarienetakoa da gaur egun literatura pragmatiko ugarian. Oinarrizko testu batzuk baizik ez aipatzearren, ikus Sperber eta Wilson 1986a-b, 1987; Wilson eta Sperber 1981, 1986, Blakemore 1992 eta Carston 1998.

dutela, gaur egungo teoria pragmatiko gehienek implizitu nahiz esplizituki egiten duten bezala. Komunikatiboa ez den hizkuntz erabilera, beraz, pragmatikaren objektutik kanpo geratzen da. Eta, gainera, komunikazioa ez da informazioaren edozein transmisio; intenzionalki eta modu agerian egindako komunikaziora mugatu nahi dute behintzat pragmatikaren aztergai gisa.

Sperber eta Wilsonen teoria Gricerenagandik abiatzen da. Gricek aitortzen duenez, aparteko garrantzia ematen dio bere pertinentziaren elkarrizketa maximari, baina ez du ikusten pertinentzia zertan datzan zehazteko modurik. Oso labur esanda, Sperberrek eta Wilsonen egiten dutena hau da: pertinentzia kontzeptua zehaztu, eta komunikazioaren teoriaren printzipio bakar bihurtu. Ez dago kooperazio printzipioaren nahiz beste inolako maximaren beharrik, behin pertinentziaren printzipioak zehaztuta.<sup>30</sup>

1. *Pertinentziaren Lehen Printzipioa (edo Kognitiboa)*: Giza kognizioak pertinentziaren maximaziora zuzentzeko joera du.
2. *Pertinentziaren Bigarren Printzipioa (edo Komunikatiboa)*: Komunikazio ageriko ekintza orok bere pertinentzia optimoaren presuntzioa komunikatzen du.

Baina zer da pertinentzia? Pertinentzia propietate bat da, *input* kognitiboen propietatea: hautemate prozesuen inputak diren *estimuluen* propietatea edo inferentzi prozesuen inputak diren *asuntzioena*. Estimulu eta asuntzioen pertinentzi gradua bi faktorek mugatzen dute: lortutako *kognizio-efektuek*, batetik, eta *prozesatze-kostuek*, bestetik. Honela, input bat, gero eta kognizio-efektu gehiago sortu, gero eta prozesatze-kostu gutxiagoz, orduan eta pertinenteagoa da. Pertinentziaren Lehen Printzipioak gizakiok pertinentzia handiena bilatzeko joera dugula esaten du, beraz. Hau mekanismo kognitiboen diseinu biologiko orokorrari buruzko kontsiderazioetan oinarritzen dute, batetik, eta haien efizientziari buruzkoetan, bestetik.

Bigarren Printzipio Komunikatiboak, berriz, Lehenean du bere oinarria, gizakion arteko komunikazioa gidatzeko modua ahalbideratuz. Bertan aipatzen den presuntzioa honela formulatzen dute:<sup>31</sup>

*Pertinentzia optimoaren presuntzioa:*

- (a) Ageriko estimulua nahikoa pertinentea da, entzulearen prozesatze esfortzua merezi izateko haina.
- (b) Ageriko estimulua pertinenteena da, komunikatzailearen gaitasun eta preferentziak kontuan hartuta.

Komunikazioan hiztunak egiten duen esaldiaren bitartez asuntzio multzo bat komunikatu nahi du, hiztunarentzat eta entzulearentzat ezagutza komun bihurtu, edo euren hitzetan, *elkarrekiko ageriko* asuntzio bihurtu. Asuntzio multzo hori, informazio mailan bere prozesatze esfortzua egiteko hainako pertinentzia duela suposatzen du entzuleak, hiztunaren gaitasunak eta nahiak kontuan hartuta egin zezakeen pertinenteena. Esaldiaren prozesatze hau bi prozesu ezberdinez osatzen da,

---

<sup>30</sup> 1995eko argitalpen berritua argitaratu arte pertinentziaren printzipio bat bakarrik aipatzen zuten eta "pertinentziaren presuntzioaz" osatu. 1995etik aurrera nahiago dute bi printzipioz hitzegi. Ikus 260-279 or.

<sup>31</sup> Hau ere formulazio berrikusia da. Ikus Sperber eta Wilson 1995, 270 or.

pertinentisten ustez. Alde batetik, esaldia soinu estimulua da eta honek dekodifikatzea eta honela lortutako errepresentazio logikoaren aberastea eskatzen dio entzuleari soinuak hiztunaren esaldiaren errepresentazio semantiko bihurtzeko. Baina hau esaldien ulerpenaren lehen zatia baino ez da. Errepresentazio semantikoa prozesatu egin behar da hiztun eta entzulearentzako komuna den testuinguru ageriko batean, bertatik inplikazio pertinenteak inferitzeko, beti ere inplikazio edo asuntzio horiek hiztunak komunikatu nahi dituenak direla kontuan hartuz.

Hona adibide bat guzti hau pixkat argitzeko: Eman dezagun Mirenek 4etatik 6etara kanpoan izango dela komunikatu nahi diola Pellori. Jo dezagun hiru gauza hauetako bat esan diezaiokeela:

- (a) Kanpoan izango naiz 4etatik 6etara.
- (b) Kanpoan izango naiz 4etatik 6etara, Mikelenean.
- (c) Kanpoan izango naiz 4etatik 6etara, Mikelenean, hurrengo bileraz hitzegiteko.

Mireni ez bazaio inporta nora eta zertarako doan esatea eta berdina bada bat edo beste esatea kostako zaion esfortzua, orduan bat edo beste erabiltzea igualtsu litzaioke. Pertinentziaren definizioak ez digu pertinentziari buruzko auresate zehatzik eskaintzen. Izan ere, informazio kantitatea (eta horrekin batera pertinentzia) gorantz doa (a)-tik (c)-ra, baina prozesate-kostua (eta horrekin batera pertinentzia) beherantz doa (a)-tik (c)-ra. Pertinentziak esaten diguna da Mirenek (a) esango diola Pellori bera nora eta zertara doan axola ez zaiola uste badu; (b) esango diola nora doan ere axola zaiola uste badu; eta (c) esango diola zertara doan ere axola zaiola uste badu. Informazio gehigarri hori prozesate-kostuen gehitzea justifikatzeko haina pertinente bada, alegia.

Gizakion arteko ageriko komunikazioari buruzko eskema orokor honi jarraiki, sekulako aplikazioak aurkitzen dizkiote Sperber eta Wilsonek pertinentziaren teoriari. Inplikaturen nozio berri bat proposatzen dute pertinentzian oinarrituta eta horren bitartez pragmatikak aztertzen dituen ohiko fenomeno gehienek esplikazio propioa eskaintzen dute: auresuposizioa, figura poetiko eta erretorikoak, literaltasuna eta ez-literaltasunaren arteko bereizketa –bereziki, metafora eta ironia-, hizketa zehaztugabea... Benetan aberatsa izan da pertinentziaren teoriaren aplikazio esparrua. Hori da, dudarik gabe, hizkuntzalarien artean bereziki izan duen arrakastaren arrazoietakoa bat.

Pertinentziaren teoriari inolako meriturik kendu nahi izan gabe, ordea, esan beharra dago errazegi hitzegiten dutela batzuek paradigma aldaketez eta paradigmaren arteko *inkonmensurabilitateaz*. Esan nahi bata, teoria honen ekarpen originalak ugari badira ere, teoria pragmatiko neogricearrekin dauzkan oinarri komunak ere onartu ohi duten baino gehiago eta sakonago direla. Horri eskainiko diot, hain zuzen, hurrengo atala: gaur egungo pragmatikan gehienek onartutako oinarri batzuk seinalatzeari, alegia.

### **3. Oinarrizko aurkikuntzak**

Atal honetan Austin eta Griceren lanen ondoren pragmatikan egindako lanetan oinarri komun batzuk aurki ditzakegu. Horietako batzuk pragmatikak hizkuntzari buruzko

ekarpenzat har ditzakegu, pragmatikariak egindako aurkikuntzat-edo, gaur egungo pragmatika zertan den zehazteko ere abiapuntuzat har daitezkeenak.


### 3.1. Pragmatikaren oinarriak psikologian

Kooperazio printzipio eta elkarrizketa maximen izaerari buruz ari dela, Gricek giza arrazionalitate orokorrean finkatzen du euren jatorria (Grice 1967a). Esanahiaz ari dela, berriz, esanahi semantikoaren definizioa hitzun edo esalearen esanahiaren definiziora eramaten du eta, hau, esalearen asmoetara (Grice 1957, 1968, 1969). “Esanahi” kontzeptu semantiko-pragmatikoaren oinarria “asmo” kontzeptu psikologikoan ikusten du Gricek. Pertinentziaren teoria ere argia da puntu honetan. Ikusi dugunez, pertinentziaren printzipio komunikatiboak printzipio kognitiboan du oinarri; hots, pertinentziak gizakion arteko ageriko komunikazioaren esplikazioan duen tokia, pertinentziak giza kognizioan duen toki oinarrizkoagotik eratortzen da. Eta puntu hauxe bera ikus daiteke teoria pragmatiko gehienaren suposizio esplizitu edo inplizitu gisa: esplikazio pragmatikoaren oinarrian giza gogo-garunari buruzko tesi psikologiko eta neurobiologikoak daude.<sup>32</sup>

Egia esan, hau ez da berez pragmatikak egindako ekarpen originala. Chomskyk sintaxiari buruz egindako lehen lanetatik defenditzen da hizkuntza eta kognizioaren arteko lotura. Hizkuntzalaritzan mantendutako tesiek bateragarri izan behar dute gogo-garunari buruz dauzkagun hipotesi egiantzekoenekin. Honek ez du zertan sintaxia, semantika nahiz pragmatika bakarka edo hizkuntzalaritza osoa neurobiologiaren edo psikologiaren adar bihurtu beharrik, noski. Baina, diziplina aniztasuna horrenbeste aldarrikatzen den garaiotan, diziplina batean egindako lanek derrigor begiratu behar diote beste batzuetan onartutako tesiekiko bateragarritasunari.

### 3.2. Komunikazioa

Oso ezaguna da guztiontzat, komunikazioaz hitzegin denean, ondoko marrazki hau:



Honen arabera, giza komunikazioa igorleak “buruan” duen pentsamendua jasotzailearenganatzean datza. Pentsamendua berez pribatuak direnez, publikoa den

<sup>32</sup> Ikus arrazionalitate eta modularitateari buruzko azalpen oso interesgarri baterako, Samuels et al. 1999.

kode eta kanal baten beharra dago. Hizkuntza litzateke gizakiok dugun kodea. Pentsamendua kodifikatu eta kanalean bidaltzea litzateke igorlearen zeregin osoa; dekodifikatzea entzulearen zeregin osoa. Kodearen ezagutza komuna ziurtatuz, kanaleko “zaratarik” ezean (edo zarata neurri soportagarrian) bermatuta legoke komunikazioaren arrakasta. Eredu hauxe dago informazio eta komunikazio teknologien atzean dagoen informazio edo komunikazioaren teoria matematikoaren oinarrian.<sup>33</sup> Baina hau ez da nahikoa giza komunikazioa esplikatzen. Hasteko, posible delako koderik erabiltzen ez duen komunikazioa. Baina, komunikazio linguistikora aplikatuta ere, istorioaren parte bat baino ez du kontatzen. Garbi dago, hizkuntza naturalaren kasuan, perpausaren esanahiak ez duela besterik gabe mugatzen adierazitako proposizioa edo “pentsamendua”. Hizkuntza naturaleko anbiguitasunak, zehaztugabetasunak eta indexikalitateak testuinguruko hainbat elementuren ezagutza eskatzen du adierazitako proposizioa ulertuko bada. Honela, batek pentsa dezake goiko marrazki hori osatu egin behar dela testuinguru kontzeptu baten bidez. Gaur egungo pragmatikaren asuntzioa, ordea, gogorragoa da: giza komunikazio linguistikoan kodifikazio-dekodifikazio prozesuez besteko garrantzia dauka inferentziak. Edo are gehiago, dekodifikazio prozedurak inferentzi prozesuen menpe daude: esalearen komunikazio asmoa igartzea baita helburua. Hortaz hitzegin baino lehen, hala ere, beste “aurkikuntza” batez hitzegino dugu: azpideterminazio semantikoaz, alegia.

### 3.3. Azpideterminazio semantikoa

Perpausaren definizioak definizio, oso ohikoa izan da hizkuntzalaritzan perpausaren esanahi semantikoa adierazten duen proposizioarekin identifikatzea. Gaur egungo pragmatikariak, ordea, bat datoz hori ukatzean. Adibide ugari dago proposizio jakinik adierazten ez duten perpausena:

1. a. Parazetamola hobe da.  
b. Parazetamola hobe da aspirina baino.
2. a. Gazteegia da.  
b. Leonardo di Caprio gazteegia da Lear Erregeren papera egiteko.

(1a) eta (2a) perpausak dira, baina ez dute bere esanahi semantiko soilaz, adierazpen indexikoen erreferenteak testuinguruaren bidez finkatu ondoren ere, proposiziorik mugatzen. Esaleak, ordea, 1a-2a esan dezake eta 1b-2b komunikatzen asmatu. Pragmatikariaren erronka hori nola den posible esplikatzea da. Baina garbi geratzen dena hau da: semantika ezin dela egi-baldintzekin identifikatu, egi-baldintzen (proposizio-edukiaren) mugatzean ere prozesu pragmatikoek parte hartzen dutela, desanbiguatze eta erreferenteen finkatzetik haratago. Gazdarren (eta Osaren) pragmatikaren definizioak ez du, beraz, balio.<sup>34</sup>

---

<sup>33</sup> Ikuspegi hau oso errotoa dago filosofiaren historian. Ikus, esaterako, Locke 1690. Teoria matematikorako, ikus Shannon eta Weaver 1949, eta teoria honen azalpen kritiko baterako Dretske 1981. Giza komunikazioaren kritika pragmatikorako ikus Sperber eta Wilson 1986b, lehen kapitulua, edo Akmajian et al. 1995, 9. kapitulua.

<sup>34</sup> Gai honekin lotuta interesgarria da *adierazgarritasun* edo *esangarritasunari* buruzko eztabaida, alegia, inplizituki komunikatzen den guztia esplizituki esaterik badagoen (Katz 1981, Searle 1969) ala ez (Sperber eta Wilson 1986b, Carston 1998).

### 3.4. Komunikazio asmoa

Esan berri dugunez, komunikazioaren helburuak ezin du izan esaleak kodifikatutako mezua dekodifikatzea, honela, adierazitako proposiziora iristeko, dekodifikazio soilaz nekez iritsiko baikara esaleak adierazitako proposizioa mugatzera. Zentzu honetan gaur egungo pragmatikarien iritziz, komunikazioan esalearen asmoa igartzea da helburu nagusia. Giza jokabide orokorrean, besteen ekintzak identifikatu eta ulertu ahal izateko euren asmoak igartzea ezinbestekoa den bezala, esaldiak esaten dizkigunean esalearen asmoa igarri beharra daukagu komunikatutakoa ulertzeko. Esaldiak asmo batekin egindako ekintzak dira; asmo klase jakin batekin egindakoak gainera. Asmoa entzuleak igar dezan nahi du esaleak. Hots, esalearen asmoa beteko bada, igarri egin behar du entzuleak. Horretan datza komunikazioa, gaur egungo pragmatikariek ahobatez onartzen dutenez. Eztabaida asmo horren definizio zehatza ematerakoan etorriko da.<sup>35</sup>

## 4. Pragmatikaren definizio berrikusia

Hasieran esan dugunez, ez dago pragmatikaren definizioari buruzko adostasunik. Eta zaila da lortzea pragmatikari asko eta askok ematen dioten esparru zabal hori mantentzen den bitartean. Ikus, esaterako, Pragmatikako Nazioarteko Elkarteak babestutako testuliburu batean jasotzen den definizio laburra:

**Pragmatika** *hizkuntza eta komunikazioaren estudio kognitibo, sozial eta kulturala* bezala defini daiteke laburki. (Verschueren et al. 1995, ix or.)

Ulergarria da horrelako elkarte batek inor kanpoan utzi nahi izatea. Baina ikuspegi zientifiko batetik ez dirudi oso erabilgarria denik guztia harrapatzen duen definizio bat eta goiko horren arabera, zer geldituko litzateke, bada, pragmatikatik kanpo?

Nahiago izan dut hasieratik pragmatikaren ikuspegi estuago bat hartu, zuzen ala oker Levinsonen “tradizio anglo-amerikarra” deitzen duenaren barruko pragmatikara mugatu, alegia. Tradizio honetan aztergaiei buruzko hainbat kontraposizio erabili dira Semantika eta Pragmatikaren eremuak ezberdintzeko. Esaterako:

1. Esaldien edukia vs. indarra.
2. Esanahiaren egi-baldintzen alderdiak vs. egi-baldintzenak ez direnak.
3. Esanahi literala vs. ez-literala.
4. Esandakoa vs. inplikaturakoa.
5. Esanahia vs. erabilpena.
6. Item linguistikoak vs. esaldiak.
7. Tipok vs. “tokenak”.

Ez gara hasiko orain kontraposizio hauek banan bana aztertzen, baina erraz esan daiteke lehenengo lauek (eta, hauekin batera, 1. eranskinean jasotako

---

<sup>35</sup> Ikus eztabaidarako Sperber eta Wilson 1986, Recanati 1986, Bach, 1987 eta Carrascal eta Korta 2000, besteak beste.



definizioetako gehienek) zergatik egiten duten huts: Pragmatikak ere badu zeresanik esaldien edukien, egi-baldintzen, esanahi literalaren, edo esandakoaren estudioan.

Nola zedarritu, beraz, Pragmatikaren (eta Semantikaren) esparrua? Berriki, antzeko iritziak defenditu dituzte Bachek (pragmatika neogricearraren ordezkari ezagunenetakoak) eta Carstonek (pertinentisten arteko ikerlari destakatuak).<sup>36</sup> Abiapuntu ezberdinetatik egiten badute ere, emaitza berdintsuak lortzen dituzte. Labur-labur, honela formula daitezke:

Semantika = kodifikazio linguistikoa

Pragmatika = Komunikazio-asmoa

Bach goiko kontraposizio horien azterketatik abiatzen da, Semantikari buruzko ideia hau defenditzeko:

“Informazio semantikoa adierazpen linguistikoei buruzkoa da... Perpausei buruzko informazio semantikoa perpau gramatikaren zatia da, eta egi-baldintzei baino erabilpenari dagozkion esanahiei buruzko informazioa ere hartzen du barne. Linguistikoki kodifikatutako informazioa esaldia aurrekoekin lotzeko moduari buruzkoa izan daiteke, edo esaldiaren gaiari buruzkoa, edo hiztuna egiten ari denari buruzkoa. Linguistikoki kodifikatutako era honetako informazioa egoteak erakusten du perpau semantikaren egitekoa ezin dela adierazten duen proposizioa ematera mugatu.” (Bach 1999, 74. or.)

Pragmatika edo informazio pragmatikoa, berriz, esaldiei eta hauen inguruko gertakariei buruzkoa litzateke, Bachen ustez. Esaldiaren informazio linguistikoaz gain esaldiak dakarren informazioa erabili behar du entzuleak esalearen komunikazio asmoa igartzeko.

Carston, esan dugunez, oso ondorio berdintsuetara iristen da. Baina bereizketa ulermen prozesuei buruzko bereizketa kognitiboetan oinarritzen da: informazio semantikoa hizkuntz *parser* delakoak, hizkuntz sistema autonomoak, alegia, produzitzen duena da. Sistema honek estimulu akustikoa linguistikotzat hartzen duenean, konputazio gramatikalak egin eta errepresentazio semantikoa edo “forma logikoa” produzitzen du. Horra hor semantikak aztertzen duen prozesua. Prozesu pragmatikoak, berriz, prozesu inferentzialak dira –teoria honen arabera, pertinentziaren printzipio komunikatiboak gidatutakoa, noski-, errepresentazio semantiko hori hizkuntz *parserretik* kanpo erabilgarri duen beste informazioarekin integratuko luketenak, esalearen asmoa igartzeari begira.

Semantika eta Pragmatikaren arteko mugei buruzko eztabaida luzearen ondoren, ez da nolanhiko lorpena honelako adostasunik lortzea definizio labur eta orokor baten inguruan. Honetan utziko dugu batez ere filosofoen gustukoa izan ohi den eztabaida orokor hau, askotan filosofoen eskuetan errazegi uzten den beste gai batzuez aritzeko: pragmatikaren mugak eta aurrera begirako erronkak.

## 5. Aurrera begira

---

<sup>36</sup> Ikus honi buruz eta hemendik aurrerako definiziorako Bach 1999 eta Carston 1999.

Aurrera begirako lehen eginkizuna jadanik aurkitu zaizkion arazoei konponbidea bilatu beharra da. Gaur egungo pragmatikari egin zaion kritikarik gogorrenetakoa, gainera, Euskal Herriko Unibertsitateko katedradun Víctor Sánchez de Zavala zenak egindakoa da gainera.<sup>37</sup> Komunikazioaren estudiora, hizkuntz erabilera komunikatiboaren estudiora murrizten du Pragmatikak bere arreta. Baina, argi dago, hizkuntz jarduerak ez direla funtzio komunikatibora mugatzen: bakarrik hitzegiten dugu,<sup>38</sup> inori ezer komunikatzeko asmorik gabe hitzegiten dugu, eta ez du oraindik inork frogatu beste jarduera linguistiko hauek baino zentralagoa denik komunikazio jarduna, ezta gutxiagorik ere. Gainera, komunikazioaren eremuan ere, ulermen prozesua esplikatzea mugatzen dira teoria pragmatikoak eta hizkuntz produkzioari buruzko bigarren mailako iradokizunak egitera. Pragmatika hizkuntz jarduera guztien estudiotzat defenditu zuen Víctorrek, baita bere teoria propioa eraiki ere. Ezin kokatu, ordea, bere teoria gaur egungo pragmatikako garrantzitsuenen artean. Bere heriotz goiztiarrak eta mundu anglosaxoiaz kanpoko unibertsitateetan lan egin izanak badute zeresanik horretan.<sup>39</sup> Nolanahi ere, erantzun beharko die Pragmatikak Víctorrek egindako kritikei.

Edozein zientzi diziplinak aurrera egingo badu, beharrezko da nolabaiteko formalizazioa. Eta hemen Pragmatikak ez du zerotik hasi beharrik. Badira urte batzuk semantikaren mugak esplizituki gainditu eta elementu pragmatikoak bere baitan hartzen dituzten teoria semantikoak dauzkagula. Garrantzitsuenak segur aski *Situazioen Semantika, Diskurtsoaren Errepresentazio Teoria (DRT)* eta *Diskurtso Errepresentazio Zatikatuaren Teoria (SDRT)*.<sup>40</sup> Gure goiko definizioaren arabera garbi dago teoria hauek ez direla erabat semantiko. Egia esan, “semantika” logiko gehienak pragmatikaren esparrura ere sartu beharrean daude, egi-baldintzen semantika egiten duten heinean. Eskuduntza arazo hauek, baina, ez dute bestelako garrantzirik erabiltzen diren kontzeptuak argi erabiltzen badira, formalizazioaren aurreko baldintza baita argitasun kontzeptuala. Nolanahi ere, gaur egun pragmatikak formalizazioa eskatzen du hizkuntzalaritzaren barruan (sintaxiaren eta) semantikaren pareko tokia lortu nahi badu.

Izan ere, formalizazioa beharrezkoa da gero ere du konputazionalak eraiki nahi badira. Eta prozesu inferentzial pragmatikoen ereduak lortzea garrantzitsua da teoria pragmatikoen egiantzekotasun psikologikoa indartzeari begira. Teoria pragmatikoaren balioa benetan gutxitu dezake hipotesi konputazional bideraezinak.<sup>41</sup> Honekin batera, psikologiako lan esperimentalen garrantzia ere ukaezina da teoriei sostengu empirikoa emateari begira. Gero eta ugariagoak dira, zorionez, hipotesi pragmatikoak indartu ala ahultzeari begira egindako psikolinguistikako lanak.<sup>42</sup>

---

<sup>37</sup> Ikus Sánchez de Zavala 1992.

<sup>38</sup> Zaharrak dira bakarriketak esalea eta entzulea bat bera diren komunikazio kasu berezi gisa esplikatzeako saioak. Erraza da ikusten hala ere bakarriketa komunikazioa dela insistitzeak ez duela zentzu handirik: posible al da gaizki ulertzea edo batere ez ulertzea bakarriketan? Noiz da bakarriketa arrakastatsu, noiz egiten du kale komunikazio ekintza bada? Bakarriketa, nire ustez, lotura estuagoa du pentsamenduarekin komunikazioarekin baino.

<sup>39</sup> Ikus Sánchez de Zavala 1997, bere teoria ezagutzeko, eta Korta eta Garcia Murga 2000 Víctorren pertsonari buruzkoak irakurtzeko.

<sup>40</sup> Situazioen Semantika: Barwise eta Perry 1983; DRT: Kamp eta Reyle 1990; SDRT: Asher 1993.

<sup>41</sup> Ikus Recanati 1995, Griceren ereduaren atzean dagoen esanahi literalaren lehentasunari buruzko tesian inplikazio konputazionalak izan dezaketen eraginari buruz.

<sup>42</sup> Herbert Clarke eta kolaboratzaileek aipatuko nituzke bereziki. Ikus, esaterako, Clark 1996, erreferentzietarako.

Garbi dagoena, diziplina anitzen arteko elkarlanean egingo dutela aurrera, zientzi jardueran orohar hain ohikoa bihurtzen ari den bezala, pragmatikan ere.<sup>43</sup> Baina honelako lan batek izan ditzakeen arrazoizko mugak gainditzen hasi aurretik, has gaitezen amaitzen.

## 6. Ondorio gisa

Ez zen erraza gaur egungo Pragmatikari begiratu zabala ematea orri gutxitan. Pragmatika hizkuntzalaritzan dugun diziplina oparoena da, segur aski, gaur egun, bai gaietara bai produzitzen den literaturari dagokiela. Egindako aukera batzuk espazio muga honi zor zaizkio. Esaterako, kanpoan geratu dira pragmatikan horrenbeste aztertu diren auresuposizioa, proposizio jarreraren deskribapenak, metafora, ironia, implizitua eta esplizituaren arteko muga, literaltasun eta ez-literaltasunaren arteko bereizketa, elkarrizketari buruzko azterketak eta abarren azalpenak. Honetxek duen luzera bereko artikulua beharko genuke gutxienez horietako gai bakoitza tajuz aurkezteko. Egilearen asmoa ase geratuko da, Pragmatikaren berri handirik ez zuen inork lan honen bidez pragmatikako lanetan aurrera egiteko interesik bereganatzen badu edota Pragmatika honez gero ezagutzen duenak aurkezpenaren oreka eta esandakoen zuzentasuna bederen onartzen baditu. Harrigarria bezain kezkarria baita hizkuntzaz hain arduratua omen dagoen herri batean hizkuntzalaritzan egindako lan guztia fonetika, fonologia, morfologia eta sintaxian izatea. Euskarari buruz egin den ia semantika guztia semantika lexikoa izan da, hiztegitza. Euskaraz egindako semantika gehiena berriz, logikarietara egina, ez da euskarari buruzkoa izan. Ea, beraz, azkenik iristen ote zaigun garaia semantika eta pragmatika euskaraz eta euskarari buruz egiteko.

---

<sup>43</sup> Ez da txantxetako, honetaz ari garela, Erretorika eta Pragmatikaren arteko lotura bilatzen duen munduko ikerketa talde bakarrenetakoa Euskal Herrian, EHUko ILCLIn, izatea.

## **1. Eranskina. Semantika eta Pragmatikaren definizioak**

### **Morris (1938)**

Semantics deals with the relation of signs to ... objects which they may or do denote. Pragmatics concerns the relation of signs to their interpreters.

By 'pragmatics' is designated the science of the relation of signs to their interpreters. (...) Since most, if not all, signs have as their interpreters living organisms, it is a sufficiently accurate characterization of pragmatics to say that it deals with the biotic aspects of semiosis, that is, with all the psychological, biological, and sociological phenomena which occur in the functioning of signs.

### **Carnap (1942)**

If in an investigation explicit reference is made to the speaker, or, to put it in more general terms, to the user of a language, then we assign it to the field of pragmatics. (...) If we abstract from the user of the language and analyze only the expressions and their designata, we are in the field of semantics. And if, finally, we abstract from the designata also and analyze only the relations between expressions, we are in (logical) syntax.

### **Bar-Hillel (1954)**

I believe, therefore, that the investigation of indexical languages and the erection of indexical language-systems are urgent tasks for contemporary logicians. May I add, for the sake of classificatory clarity, that the former task belongs to *descriptive pragmatics* and the latter to *pure pragmatics* (in one of the many senses of the expression)?

### **Stalnaker (1972)**

Syntax studies sentences, semantics studies propositions. Pragmatics is the study of linguistic acts and the contexts in which they are performed. There are two major types of problems to be solved within pragmatics: first, to define interesting types of speech acts and speech products; second, to characterize the features of the speech context which help determine which proposition is expressed by a given sentence. ...It is a semantic problem to specify the rules for matching up sentences of a natural language with the propositions that they express. In most cases, however, the rules will not match sentences directly with propositions, but will match sentences with propositions relative to features of the context in which the sentence is used. Those contextual features are part of the subject matter of pragmatics.

### **Katz (1977)**

[I] draw the theoretical line between semantic interpretation and pragmatic interpretation by taking the semantic component to properly represent only those aspects of the meaning of the sentence that an ideal speaker-hearer of the language would know in an anonymous letter situation, ... [where there is] no clue whatever about the motive, circumstances of transmission, or any other factor relevant to understanding the sentence on the basis of its context of utterance.

### **Gazdar (1979)**

## PRAGMATICS=MEANING – TRUTH CONDITIONS

What we need in addition is some function that tells us about the meaning of utterances. (...) The domain of this pragmatic function is the set of utterances, which are pairs of sentences and contexts, so that for each utterance, our function will return as a value a new context – the context as changed by the sentence uttered. (...) And we can treat the meaning of the utterance as the difference between the original context and the context arrived at by utterance of the sentence. [This applies to only] a restricted subset of pragmatic aspects of meaning.

### **Kempson (1988)**

Semantics provides a complete account of sentence meaning for the language, [by] recursively specifying the truth conditions of the sentence of the language. ... Pragmatics provides an account of how sentences are used in utterances to convey information in context.

### ***The Oxford Companion to Philosophy (Fotion, 1995)***

Pragmatics is the study of language which focuses attention on the users and the context of language use rather than on reference, truth, or grammar.

### ***The Cambridge Dictionary of Philosophy (Lycan, 1995)***

Pragmatics studies the use of language in context, and the context-dependence of various aspects of linguistic interpretation. ...[Its branches include the theory of how] one and the same sentence can express different meanings or propositions from context to context, owing to ambiguity or indexicality or both, ... speech act theory, and the theory of conversational implicature.

### ***The Blackwell Companion to Philosophy (Davies, 1995)***

The distinction between semantics and pragmatics is, roughly, the distinction between the significance conventionally or literally attached to words, and thence to whole sentences, and the further significance that can be worked out, by more general principles, using contextual information.

## **2. Eranskina. Griceren Kooperazio printzipioa eta elkarrizketa maximak. (Grice 1967a)**

### **Kooperazio maxima**

*Gure elkarrizketak ez dira normalean loturarik gabeko oharren segida bat, eta ez lirateke arrazional hala balira. Maila bateraino gutxienez, esfortzu kooperatiboak izan ohi dira; eta solaskide bakoitzak ikusten du horietan, neurri batean behintzat, helburu komun bat edo helburu multzo komun bat, edo gutxienez elkarri onartutako zuzenbide bat. Gutxi gora-behera formula genezake beraz printzipio orokor bat, (ceteris paribus) solaskide bakoitzak jarraitzea espero daitekeena: Egin ezazu elkarrizketarako zure ekarpena parte hartzen ari zaren solasaren onartutako helburu edo zuzenbideak, fase bakoitzean, eskatu bezala.*

### **Kantitate maximak:**

- 1) *Egin ezazu zeure ekarpena behar bezain informatiboa (elkarrizketaren uneko helburuetarako).*
- 2) *Ez ezazu egin zeure ekarpena behar baino informatiboagoa.*

### **Kalitate maximak:**

*Supermaxima: Saia zaitetz zeure ekarpena egiazkoa izan dadin.*

- 3) *Ez ezazu esan faltsua dela uste duzuna.*
- 4) *Ez ezazu esan bere egiari buruzko nahikoa frogaz ez daukazu ezer.*

**Erlazio maxima:** *Izan zaitetz pertinente.*

### **Modu maximak:**

*Supermaxima: Izan zaitetz argia.*

1. *Adierazpen iluntasuna saihestu.*
2. *Anbiguitasuna saihestu.*
3. *Izan zaitetz labur (premiarik gabeko jariora saihestu).*
4. *Izan zaitetz ordenatu.*

## Erreferentzia bibliografikoak

- Akmajian, A., R. A. Demers, A. K. Farmer, and R. M. Harnish (1995), *Linguistics: An introduction to language and communication*. Cambridge, MA: MIT Press.
- Asher, N. (1993), *Reference to abstract objects in discourse*. Dordrecht: Kluwer.
- Austin, J. L. (1961), Performative Utterances, in J.O. Urmson and G.J. Warnock (eds.) *Philosophical Papers*, Oxford: Clarendon, 1961. (Euskarazko bertsioa, Esaldi performatiboak, in K. Korta (arg.) (2001), *Hizkuntzaren Filosofiako Irakurgaiak*. Bilbo: UPV-EHU.)
- Austin, J. L. (1962), *How to Do Things with Words*. Oxford: Clarendon.
- Bach, K. (1987), On Communicative Intentions: A Reply to Recanati, *Mind and Language* **2**, 141-154.
- Bach, K. (1994), Conversational Implicature. *Mind and Language* **9**, 124-162.
- Bach, K. (1999), The semantics-pragmatics distinction: What is it and why it matters. In Ken Turner (ed.), *The Semantics/Pragmatics Interface from Different Points of View*, 1999, 65-84.
- Bach, K. eta R. M. Harnish (1979), *Linguistic Communication and Speech Acts*. Cambridge, Mass.: MIT Press.
- Bach, K. and R. M. Harnish (1992), How performatives really work: A reply to Searle. *Linguistics and Philosophy* **15**, 93-110.
- Bar-Hillel, Y. (1954), Indexical Expressions. *Mind* **63**, 359-79.
- Barwise, J. eta J. Perry (1983), *Situations and Attitudes*. Cambridge, Mass.: MIT Press.
- Blakemore, D. (1992), *Understanding Utterances*. Oxford: Blackwell.
- Carrascal, B. & K. Korta (2000), "Towards a logic of communicative intention." In X. Arrazola, B. Carrascal and K. Korta, I. Gómez Txurruka. Three Papers on Logic (Communication, Natural Language Connectives, Many-Valued Modalities). Contributed papers presented at the First International Workshop on the History and Philosophy of Logic, Mathematics and Computation. Report No. ILCLI-00-L-3. December 2000.
- Carnap, R. (1942), *Introduction to Semantics*. Cambridge, MA: Harvard University Press.
- Carnap, R. (1956), *Meaning and Necessity*. Second edition. Chicago: The University of Chicago Press.
- Carston, R. (1998), *Pragmatics and the Explicit/Implicit Distinction*. Ph.D. Thesis. University of London.
- Carston, R. (1999), The semantics/pragmatics distinction: A view from Relevance Theory. In Ken Turner (ed.), 1999 *The Semantics/Pragmatics Interface from Different Points of View*, 1999, 85-125.
- Clark, H. H. (1996), *Using language*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Conley, T.D. (1990), *Rhetoric in the European Tradition*. Chicago: The University of Chicago Press.
- Davies, M. (1995), Philosophy of Language. In N. Bunnin eta E. Tsui-James (arg.) *The Blackwell Companion to Philosophy*, Oxford: Blackwell, 90-139.
- Dretske, F. I. (1981), *Knowledge and the Flow of Information*. Cambridge, Mass.: MIT Press.
- Fotion, N. (1995), Pragmatics. In T. Honderich (arg.), *The Oxford Companion to Philosophy*, Oxford: Oxford University Press, 709.

- Gazdar, G. (1979), *Implicature, Presupposition, and Logical Form*. New York: Academic Press.
- Grice, H. P. (1957), Meaning, *Philosophical Review* **66**, 377-388. Grice 1989-n berrargitaratua, 213-223 or. (Euskarazko bertsioa, Esanahia, in K. Korta (arg.) (2001), *Hizkuntzaren Filosofiako Irakurgaiak*. Bilbo: UPV-EHU.)
- Grice, H. P. (1967a), Logic and Conversation. In P. Cole and J. L. Morgan (eds.), *Syntax and Semantics, vol. 3: Speech Acts*. New York: Academic Press, 1975, 41-58 or. Grice 1989-n berrargitaratua, 22-40 or.
- Grice, H. P. (1967b), Further Notes on Logic and Conversation. In P. Cole (ed.), *Syntax and Semantics 9: Pragmatics*. New York: Academic Press, 1978, 113-27. (Grice 1989-n berrargitaratua, 41-57 or.)
- Grice, H. P. (1968), Utterer's Meaning, Sentence-Meaning, and Word-Meaning. *Foundations of Language* **4**, 225-242. Grice 1989-n berrargitaratua, 117-137 or.
- Grice, H. P. (1969), Utterer's Meaning and Intentions, *Philosophical Review* **78**, 147-177. Grice 1989-n berrargitaratua, 86-116 or.
- Grice, H. P. (1989), *Studies in the Way of Words*. Cambridge, MA: Harvard University Press.
- Kamp, H. eta U. Reyle (1990), *From discourse to logic*. Dordrecht: Reidel.
- Kaplan, D. (1989), Demonstratives. In J. Almog, J. Perry eta H. Wettstein (eds.) *Themes from Kaplan*. Oxford: Oxford University press.
- Kasher, A. (1998), *Pragmatic: Critical Concepts*. (6 liburuki). London: Routledge.
- Katz, J. (1977), *Propositional Structure and Illocutionary Force*. New York: Crowell.
- Katz, J. (1981), *Language and other abstracts objects*. Oxford: Blackwell.
- Kempson, R.E.M. (1988), Grammar and Conversational Principles. In F. Newmeyer (ed.) *Linguistics: The Cambridge Survey, Vol. II*. Cambridge: Cambridge University Press, 139-163.
- Korta, K. eta F. García Murga (comps.) (2000), *Palabras. Víctor Sánchez de Zavala in memoriam*. Bilbo: EHUko Argitarapen Zerbitzua.
- Levinson, S.C. (1983), *Pragmatics*. New York: Cambridge University Press.
- Levinson, S.C. (2000). *Presumptive Meanings. The theory of the generalized conversational implicature*. Cambridge (MA): The MIT Press.
- Locke, J. (1690), *An Essay Concerning Human Understanding*.
- Lycan, W. (1995), Philosophy of Language. In R. Audi (arg.), *The Cambridge Dictionary of Philosophy*, Cambridge: Cambridge University Press, 586-589.
- Morris, C. (1938), Foundations of the Theory of Signs. In *International Encyclopedia of Unified Science* 1 (2). Chicago: Chicago University Press.
- Neale, S. (1992), Paul Grice and the Philosophy of Language, *Linguistics and Philosophy*, 509-559.
- Nerlich, B. and D.D. Clark (1996), *Language, action and context: A history of pragmatics in Europe and America, 1780-1930*. Amsterdam: John Benjamins.
- Nöth, W. (1990), *Handbook of Semiotics*. Bloomington: Indiana University Press.
- Osa, E. (1990), *Euskararen hitzordena komunikazio zereginaren arauera*. Leioa: EHUko Argitarapen Zerbitzua.
- Perry, J. (2000), *The Problem of the Essential Indexical and Other Essays*. (Expanded edition). Stanford: CSLI Publications.
- Perry, J. (2001), *Reference and Reflexivity*. Stanford: CSLI Publications.



- Peirce, C.S. (1934-36), *The Collected Papers of Charles Sanders Peirce*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Recanati, F. (1986), On Defining Communicative Intentions, *Mind and Language* **1**, 213-242.
- Recanati, F. (1989), The Pragmatics of What is Said. *Mind and Language* **4**, 295-329.
- Recanati, F. (1995), The alleged priority of literal interpretation. *Cognitive Science* **19**, 207-32.
- Russell, B. (1905), On Denoting, *Mind* **14**. (Euskarazko bertsoia, Denotatzeaz, in K. Korta (arg.) (2001), *Hizkuntzaren Filosofiako Irakurgaiak*. Bilbo: UPV-EHU.)
- Russell, B. (1959), *My Philosophical Development*. London: Unwin.
- Samuels, R., S. Stich eta P.D. Tremoulet (1999), From bleak implications to Darwinian modules. In K. Korta, E. Sosa eta X. Arrazola (arg.), *Cognition, Agency and Rationality*. Dordrecht: Kluwer.
- Sánchez de Zavala, V. (1992), On the study of linguistic performance. In J. Ezquerro and J. M. Larrazabal (eds.), *Cognition, Semantics, and Philosophy: Proceedings of the First International Colloquium on Cognitive Science*. Dordrecht: Kluwer, 129-78.
- Sánchez de Zavala, V. (1997), *Hacia la pragmática (psicológica)*. Madrid: Visor.
- Searle, J. (1965), What is a speech act?. In M. Black (ed.), *Philosophy in America*. Ithaca: Cornell University Press.
- Searle, J. (1969), *Speech Acts: An essay in the philosophy of language*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Searle, J. (1973), Austin on Locutionary and Illocutionary Acts. In I. Berlin et al., *Essays on J. L. Austin*, Oxford: Clarendon Press.
- Searle, J. (1975a), A taxonomy of illocutionary acts. In K. Gunderson (ed.), *Language, Mind and Knowledge, Minnesota Studies in the Philosophy of Science*, vol. VII, Univ. of Minnesota Press, 344-69. Reprinted in J. Searle, *Expression and Meaning. Studies in the Theory of Speech Acts*. Cambridge: Cambridge University Press, 1979, 1-29.
- Searle, J. (1975b), Indirect Speech Acts. In P. Cole and J. Morgan (eds.), *Syntax and Semantics Vol. 3, Speech Acts*, Academic Press. Reprinted in J. Searle, *Expression and Meaning. Studies in the Theory of Speech Acts*. Cambridge: Cambridge University Press, 1979, 30-57.
- Searle, J. (1989), How Performatives Work. *Linguistics and Philosophy* **12**, 535-58.
- Searle, J. (1992), Conversation Reconsidered. In J. Searle et al, *(On) Searle on Conversation*, Amsterdam: John Benjamins, 1992, 137-147.
- Searle, J. eta D. Vanderveken (1985), *Foundations of Illocutionary Logic*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Shannon, C. eta W. Weaver (1949), *The mathematical theory of communication*. Urbana: University of Illinois Press.
- Sperber, D. eta D. Wilson (1986a), On Defining Relevance. In R. E. Grandy and R. Warner (eds.), *Philosophical Grounds of Rationality*. Oxford: Clarendon Press, 243-
- Sperber, D. eta D. Wilson (1986b), *Relevance: Communication and Cognition*, Oxford: Blackwell. (2. argitalpen berrikusia: 1995)
- Sperber, D. and D. Wilson (1987), Précis of *Relevance: Communication and Cognition. Behavioral and Brain Sciences* **10**, 697-754.
- Stalnaker, R. (1972), Pragmatics. In G. Harman and D. Davidson (eds.), *Semantics of Natural Language*. Dordrecht: Reidel, 197-213.

- Strawson, P. F. (1950a), On Referring. *Mind* **59**, 320-344. (Euskarazko bertsioa, Erreferitzez, in K. Korta (arg.) (2001), *Hizkuntzaren Filosofiako Irakurgaiak*. Bilbo: UPV-EHU.)
- Thomason, R. H. (ed.) (1974), *Formal Philosophy: Selected papers of Richard Montague*. New Haven: Yale Univ. Press.
- Vanderveken, D. (1990), *Meaning and Speech Acts, Vol. I, Principles of Language Use*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Vanderveken, D. (1991), *Meaning and Speech Acts, Vol. II, Formal Semantics of Success and Satisfaction*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Verschueren, J., J-O. Östman eta J. Blommaert (arg.) (1995), *Handbook of Pragmatics*. Amsterdam: John Benjamins.
- Wilson, D. and D. Sperber (1981), On Grice's Theory of Conversation In P. Werth (ed.), *Conversation and Discourse*. London: Croom Helm, 155-78.
- Wilson, D. and D. Sperber (1986), Inference and Implicature. In C. Travis (ed.), *Meaning and Interpretation*, Oxford: Blackwell.
- Wittgenstein, L. (1953), *Philosophische Untersuchungen / Philosophical Investigations*. Oxford: Blackwell.